

Elena

Etxeberria Olano

Astigarraga, 1963

Baserritarra. Gizarteak ezarritako rola argi izanik, bere nahiak jarraituz eta ikasteko prest agertuz nekazaritza ekologikoaren alde egin duen emakumea.

Baserritarra. Mujer que ha optado por la agricultura ecológica, consciente del rol que la sociedad le había asignado, pero siguiendo sus propios deseos y con disposición para aprender.

“

Saiatu baita ere
eso que tenemos
aquí que se
llama mente,
hacerla flexible,
eta irekia.



Baserri batean denok genuen gure eginkizuna txikitatik. Nire amak esaten zidan: "Begira, ikastea oso ondo dago. Alferrik hemen ez zarete ibiliko ikasten, nota onak ez badituzue ateratzen, lanera!". "Bale, bale". Magisteritza ikasi nuen eta irakaskuntza ondoan haur-eskola bat zegoen eta han egin nituen bost urte lanean.

Nire amaren gaixotasun horrekin hasi ginen ikusten zein nekazaritza mota egiten ari ginen. Mediku horrek ere esan zigun, ea zer gauza ari ginen jaten eta pixka bat zabaldu zitzaigun mundu bat: nekazaritza ekologikoa. Baina nire aitak: ea nola aldatuko genuen guzti hori. Nik lanpostu bat neukan eta nire amak esaten zidan: "Zuk nekazaritza hori egin behar duzu!".

Eta gero nire ama hil zenean, ni 25 urterekin, noski, hemen gelditzen zen nire aita bakarrik nire anaiarekin. Eta orduan, eskola horretan ere ez nengoen oso gustura, una

cabezoneria, eta utzi egin nuen lana eta hasi nintzen nire aitari laguntzen.

Nire bizitzan izan zen... parentesi bat egin nuen. Zergatik ikusten nuen nire bizimodua nolako izango zen. La carga que se me venía encima, con el caserío, sola... Eta orduan planteatu nuen etxean, ba, ospa egingo nuela urtebete hemendik. Eta Kolonbiara joan nintzen urte eta erdi.

Unibertsitatera joan nintzen pixka bat, "¿Qué es lo que estoy haciendo? Agricultor". Ba joan nintzen a la Facultad de Agronomía. Irakasle bati esan nion: "Posible dut hemen egotea entzule bezala?". "Ba bai!". Dena zen nekazaritza ekologikoa gainera eta nik esaten nuen: "¡Pero si esto es lo que yo estaba buscando!".

Eraman zigun finka txiki batera eta han bera, emakumea, zen finkaren arduraduna; ez senarra, bera. Esan nion: "Nik honera etorri

nahi dut ikastera". Eta nola irakaslea eta emakume hori lagunak ziren, irakasle horren bitartez joan nintzen finka horretara lanera.

Gero hemen esan nuen: "Nik jarraitu nahi dut, jada piztu zaidan txispa hau jarraitu nahi dut".

Hemen izan genuen 2006. urtean autopista bat. Zeharkatu zuen, baserri erdi-erditik. Eta baratze hoberenak, fruta- arbolak eta denak hankaz gora joan ziren. Nire aita karretera horrek utzi zuen hankaz gora bera ere. Orduan, baratzeko riendak nik hartu nituen.

Eta pixka bat jada hasi ginen behintzat produktu kimikorik ez erabiltzen. Nik esango dizut gauza bat, begira: baserri batean lana egitea gogorra da, baina oraindik gogorragoa da emakume bat izatea, eta bakarrik. Nik pasatzen dut goizeko seietatik gaueko hamabiak arte lanean.

Gustatzen zait baita ere, hori jaso dugu hemendik nire amarengandik, belar mundua. Ukenduak egiten ditut. Baratzean, barazkietatik aparte egiten ditugu loreak. Jende askok esaten dit: "¿Por qué no vendes?". "No, vender no. Tú tienes que venir y hacerlo". Eta orduan emakume batzuk elkartzen gara jarabea egitera.

Nik orain daukat kezka erreleboa nola egin. Hurrengoa hona etorriko den pertsona hau hartuko duena ezin da ni bizi izan naizen bezala bizi; hainbeste ordu lanean ezinezkoa da.

Ni nola sentitzen naizen? Beno ba, beti ikasten. Eta saiatu baita ere eso que tenemos aquí que se llama mente, hacerla flexible, eta irekia. Lana egin eta gero gustatzen zait asko zinema, irakurtzea... Yo me tengo que alimentar no solo de trabajo, de otras cosas.

En un caserío todas y todos teníamos nuestro papel desde la infancia. Mi madre me decía: "Mira, estudiar está muy bien. En vano aquí no estaréis estudiando, si no sacáis buenas notas, a trabajar". "Vale, vale". Estudié magisterio y al lado de la facultad había un parvulario y allí trabajé durante cinco años.

Con la enfermedad de mi madre, empezamos a ver qué tipo de agricultura estábamos haciendo. El médico también nos preguntó a ver qué estábamos comiendo y se nos abrió un poco un mundo: la agricultura ecológica. Pero mi padre nos decía a ver cómo íbamos a cambiar todo eso. Yo tenía un puesto de trabajo y mi madre me decía: "¡Tú tienes que hacer esa agricultura!".

Cuando mi madre murió, yo tenía 25 años. Y claro, mi padre se quedaba solo con mi hermano. Entonces, en el parvulario tampoco estaba muy a gusto, una cabezonería, y dejé

el trabajo y empecé a ayudar a mi padre.

Fue en mi vida... hice un paréntesis. Porque veía cómo sería mi vida. La carga que se me venía encima, con el caserío, sola... Y entonces planteé en casa que me iba a escapar un año de aquí. Y fui a Colombia durante un año y medio.

Fui a la universidad un poco: "¿Qué es lo que estoy haciendo? Agricultor". Fui a la facultad de agronomía. Le dije a un profesor: "¿Puedo estar aquí como oyente?". "¡Pues sí!". Todo era agricultura ecológica además y yo decía: "¡Pero si esto es lo que yo estaba buscando!".

Nos llevó a una finca pequeña, donde ella, la mujer, era la responsable de la finca, no su marido, ella. Le dije: "Yo quiero venir aquí a aprender". Y como el profesor y la mujer eran amigos, por medio de él, fui a trabajar a esa finca.

Luego aquí dije: “Yo quiero seguir, quiero seguir con esta chispa que ya se me ha despertado”.

Aquí tuvimos una autopista en el año 2006. Atravesó el caserío por la mitad. Y los mejores huertos, los árboles frutales y todos se fueron por los aires. Mi padre se vio arrastrado por esa carrera. Entonces yo tomé las riendas de la huerta.

Y poco a poco ya empezamos a dejar de utilizar productos químicos. Yo te voy a decir una cosa, mira: trabajar en un caserío es duro, pero todavía es más duro ser una mujer y sola. Yo trabajo desde las seis de la mañana hasta las doce de la noche.

También me gusta, eso hemos heredado de mi madre, el mundo de las hierbas. Hago ungüentos. En la huerta hacemos flores al margen de las verduras. Mucha gente me dice: “¿Por qué no vendes?”. “No,

vender no. Tú tienes que venir y hacerlo”. Y entonces nos juntamos unas mujeres para hacer el jarabe.

A mí ahora me preocupa cómo hacer el relevo. El o la siguiente que va a venir aquí no puede vivir como yo he vivido; tantas horas de trabajo son imposibles.

¿Cómo me percibo? Bueno, siempre aprendiendo. Y también intentar que, eso tenemos aquí que se llama mente, hacerla flexible y abierta. Después de trabajar me gusta mucho el cine, leer... Yo me tengo que alimentar no solo de trabajo, de otras cosas.

Ikus bideoa
Ver vídeo

